



<http://www.azti.es/vertalim/>

ELIKAGAIEN SEKTOREKO ENPRESA TXIKI ETA ERTAINEK EGINDAKO KARGA ORGANIKO ETA/EDO GATZ ALTUKO ISURKETEN HIRI-SANEAMENDUKO SISTEMAN INTEGRAZIOA

KOORDINATZAILEA: Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa

BAZKIDEAK: AZTI (koordinatzaile teknikoa), Ceit-IK4, Aguirreoa, Guenaga, Heisa eta Marmar.

IRAUPENA: 2016ko uztailetik 2019ko abendura bitartean.

AURREKONTUA: 1.958.998 €. Europako LIFE + proiektuak finantzatzen du (aurrekontu osoaren % 56).

KOFINANTZATUTA: Uraren Euskal Agentziak (URA).

PROIEKTUAREN LABURPENA

HELBURUA: Osatutako soluzio baten froga (alde tekniko, legeile eta ingurunean) arrain-kontserben sektoreko enpresen kolektorerako isurketek eragiten dituzten arazoak murrizteko, haien hondakin-urak hiri-saneamenduko sisteman modu kontrolatuan bilduz.



ALDERDI INTEGRATZAILEA: Proiektuaren funtsezko alderdietako bat dugu, arazoarekin lotura duten eragile guztiak biltzea lortu duela (kontserba-enpresak, ura kudeatzen duten erakundeak eta administrazioak). Arazoari konponbide integrala emateko aukera dakar horrek, baliabide mugatu baten, uraren, kudeaketa jasagarriaren bidez.


- Enpresen ekoizpen garbi eta ekoeraginkorraren bidez eta kostu txikiko jardueren bidez, sektorearen jasagarritasuna hobetzea.
- Telekudeaketako sistema bat ezarriko da saneamendusarean, hiri- eta industria-isurketen kudeaketa adimenduna egiteko urrutitik, kolektore-sarearen eta araztegiaren modelizazioa eginez.

PROIEKTUAREN ERAKUSTALDIA: Lea-Artibai eskualdean egingo da proiektua egiaztatzeko proba; emaitzak, berri, Europako arrain-kontserbagintza osora hedatuko dira.



PROIEKTUAREN TRANSFERENTZIA- ETA ERREPLIKATZE-PLANA

Proiektu honetatik sortzen den soluzioa, bertako arrain-kontserba industriekin antzeko arazoak dituzten beste eskualdeetan erreplikatu daiteke. STECFeko txostenaren arabera (2011), Europan 3.500 kontserba enpresa daude, zeinetatik % 86 enpresa txikiak dira. Espainia mailan, antzeko arazoekin Euskadi (Bermeo eta Mutriku), Kantabria (Santoña) eta Galiziako beste gune batzuk daude. Europa mailan, Portugal (Dueroko Erribera eta Aveiro) eta Italia (Sizilia, Veneto eta Emilia Romagna).



AURREIKUSITAKO ONURAK




30% Ingurumenean deskargarik ez egitea (% 30).



10% Elikagai askoz gutxiago galtzea (% 10).




1% Produktibitatea handitzea (% 1).




40% Estolderia-sistemari jartzen zaizkien karga organiko altuak murriztea (% 40).




100% Uraren Esparru Direktibak (2000/60/EE direktiba) ezarritako indarreko arauak betetzea.



95% Elikadura-sektoreko enpresa txiki eta ertainen hondakin-uren % 95en eutrofizazio-potentziala murriztea



3% Ibaiaren arroan, estres hidrikoa % 3 murriztea.



40% Saneamendu-azpiegituren gaineko presioaren murriztea (% 40).

PARTAIDEAK

Koordinatzailea Koordinatzaile teknikoa

Kofinantzatzailea